



Jakin filosofatzen

«Artzainak izan ziren lehendabiziko poetak»

Oskar Alegria Suescun

◊ *Zinzindurrunkarratz* (2023) zure film berrian, zurtasunaren ideiak garrantzi nabarmena du. Jatörrira jo nahia ordezka dezake, zarata araztu nahia... bai?

Bai, ongi zabilta. Laino artean egindako film bat delako. Eta lainoa Andimendin ondare bat da, zinez berezia. Lainoa beltza da trinkotzen denean, hango artzainek erraten duten gisan. «Nola beltza?», galdetu nion artzain bati, «zuria da». Eta berak: «Kanpotik ikusten duzulako, baina barnean beltz-beltza da». Zuria hastapena da, eta filma hastapenez egina dago.

◊ Narratzaileak zera esaten du: «Luxu guztiei uko egingo diegu, moteltasunari salbu».

Nicolas Bouvier idazle eta bidariarena da, orain dela hamar-kada batzuk erran zuen... Beraz, gure egunentzat, gero eta beharrezkoagoa dela uste dut: moteltasuna eta gelditasuna. Astoek bezala. Sigi-sagan pentsatzen dute –ingeniariek astoak erabili izan dituzte bide errazena asmatzeko– eta ez dute inoiz alturarik galtzen. Denbora aukeratzen dute, ez presa.

◊ Paolo astoarekin ageri zara filmean. Zer ikasi diozu?

Bidea nola egin. Ene asmoa ez zen galdutako bide bat berreskuratzea, ibilkera bat baizik: gure aitona egiten zuena, pausaz pausa, jendearen enkontruekin eta natura parez pare.

◇ Zure lanen artean isilena da hau. Zer entzun da isiltasun horretan?

Ez dakit, eta hori da filmaren libertatea. Isiltasuna bertze luxu bat da, galtzen ari garena. Filma Japonian erakustean, ez dakit zergatik, artzain baten kaikua agertzean, isiltasuna apurtu zuten. Oo! Galdera gehienak ere kaikuaren inguruan izan ziren, zein egurrez egina zen, zein ilargirekin moztua, zaporea ematen ote zion esnari... Misterioa da.

◇ Izenburua hiru hitzen elkarketa da. Orain, tximeleten euskarazko hitz diferentek biltzen ei zabilta. Zer duzu hitzekin?

Nire asmo nagusia hitz galdu bat erreskatatu eta ohore egitea da. Film honen kasuan, ederra da ikustea gure mapa zaharretan leku izen asko doinuz bataiatuak daudela. Ez da lurra izendatzea, kartografia egitea baizik. Artzainak izan ziren lehendabiziko poetak. Eta lainoa haien bertsoak idazteko orri zuria.

◇ Bada zurekin daramazun poema-lerrorik?

Jorge Teillierrena. Haren bertso bat *Zumiriki*-n izan nuen errepikan: *Zure irla gaueko itsasoan hondoratzen da.*

◇ Eta zer da zuretzat «begirada poetikoa»?

Ikusezina izendatzea. Edo filmatzea. Zinema, edo artea, desafio horretan datza. Haizea errepikatzen da beti ene filmetan: filmatu ezin duguna, zurtasun osoan gordetzen dena.



Itziar Ugarte Irizar